

EAJ-PNV, EHBildu, PSE-PSOE talde politikoek Udal Plenoan eztabaidatzeko, *Amnistia internacional* elkartearen mozio proposamena aurkezten dute, COVID-19ren aurkako txertoak mundu osoan eskuratzeko:

Azkenaldian gertatu den osasun publikoko larrialdi garrantzitsuena dugu gure aurrean. 2.6 milioi pertsona baino gehiagok galdu du bizitza mundu osoan. Mundu-ekonomiak bilioika dolar galdu ditzake immunizazio mailak ez badu azkar gora egiten mundu osoan. Nazioetako osasun sistemak erortzear daude, herrialde askotako ekonomiak zapalduta eta milioika pertsonen bizibidea arriskutan.

COVID-19aren aldaera berriek erakusten digute birusa toki guztietan menperatu arte, ez dugula irabaziko. Urtebete geroago, argi dago txertoen fabrikazioa eta erabilgarritasuna esponentzialki handitzea eta mundu mailan bidezko banaketa bermatzea premiazkoak direla. Honek, ezagutza, datuak, baliabideak eta jabetza intelektualak zabalki elkarbanatzea eskatzen ditu, diru-sarrerara ertain eta txikia duten herrialdeekin batez ere.

Estatu Batuetako Administrazioak patenteen liberalizazioa bultzatzeko iragarkiarri ongi etorria egiten diogu eta, uste dugu, orain Europar Batasunari dagokiola pausuok jarraitzea. Espainiak gauza interesgarriak agertu ditu, baina neurri zehatzetan bihurtu behar dira.

Zentzu berean azaldu dira Osasunaren Mundu Erakundeko Zuzendaria, munduko 100 gobernu baino gehiago, gizarte zibileko ehundaka elkarte eta sindikatu. Beraiekin bat egin dugu Europako batzordeari eta EB-ari mailarik gorenean eztabaida dezaten eskatzeko, behin behineko salbuespenak bultzatu ditzaten Merkataritzarekin Lotutako Jabetza Intelektual eta Ezaguerari buruzko Akordioetan (ADIPC gaztelaniaz). Hegoafrikak eta Indiak proposatutako salbuespenak jabetza intelektualak eta ezaguera partekatzea erraztuko luke. Ekimen honekin jabetza intelektualak sortutako monopolioak ekidituko litzateke eta zuzenbideko ziurtasun eza deuseztatuko litzateke. Honek jarduteko askatasuna eskaintzen du eta ondorioz, erabilgarritasuna, eskuragarritasuna eta merketasuna handitu eta azkartzeko lankidetzak ahalbidetuko litzateke.

Gure gizarteek, garezti ordaindu dute jadanik pandemiarekin lotutako bizitza galera eta atzerapen ekonomikoa. Egoera hau txarrera doa egunetik egunera. Horretaz gain, diru publiko kopuru handia dago COVID-19aren inguruko teknologietan egiten ari diren aurrerakuntzak bultzatzen. Txertoa biztanleria guztira ahalik eta azkarren heltzeko elkarrekin lan egitea eta galarazten duten oztopo guztiak kentzea guztion intereserako da.

Guzti honengatik, Tolosako Udalbatzarrak Espainiako Gobernuari zuzendutako hurrengo eskaera adostu du:

1. Mundu mailako lankidetzak oztopoak kentzea, txertoen hedapena, behar besteko ekoizpena eta mundu guztian garaiz eta zuzentasunez banatzea bermatu daitezkeen. Hor sartu behar litzateke beste estatuei laguntza tekniko eta ekonomikoa eskaintzea, Osasunaren mundu erakundeak ezarritako zientzia eta COVID-19 baliabideak elkarbanatzeko mekanismoetan elkar laguntzea; hala nola, COVID-19 -aren kontrako Tresnen Irispen Azeleradorea (ACT-A) eta honen oinarri den COVAX, herrialde arteko txertoen bidezko banaketarekin lotuta dagoena.
2. Bermatu, Jabetza intelektualeko zuzenbideak ezein herrialderi osasun eskubideak babestea ez diola ekiditen. Horretarako, behin behineko salbuespenak beharrezkoak dira Merkataritzarekin Lotutako Jabetza Intelektual eta Ezaguerari buruzko Akordioetan (ADIPC gaztelaniaz), COVID-19 -aren kontrako osasun-produktuen ekoizpenerako.
3. Udal akordio hau Espainiako Gobernuko Presidentziari, Autonomi Erkidegoko Osasun Kontseilaritzari eta ondorengo erakundeei: Amnistía Internacional, Médicos sin Fronteras eta Oxfam Intermón jakinaraziko zaie.

Tolosan, 2021eko maiatzaren 20an

Joseba Ormazabal Lopez

Jose M^a Villanueva Telleria

Ander Figuerido Zubiria

EAJ-PNV

PSE-PSOE

EHBILDU